

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



ATZEGIREN NORBERE KABUZ
BIZITZEKO PROGRAMA

**DESGAI
IZATETIK
GAI IZATERA**



HORTZ KLINIKA



**BERTAKOAK,
PROFESIONALAK ETA
KONFIANTZAZKOAK**

Jose Artetxe 5
☎ 943-02 59 55

**MILAR
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak



dyson

Miele

MILAR LARRAMENDIIN AURKI DITZAKEZU
DYSON ETA **MIELE** PRODUKTUAK

www.milar.es webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus

*Gabonak
iristear dande.*

Jantzi zure etxea
apaingarri berezienekin.

www.kimubat.eus | Urrestilla bidea, z/g. Azpeitia



KIMUBAT
— GARDEN



UZTARRIA 255

2022-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Mailo Oiarzabal, <i>Burruntzalia</i> . | 26 | Erretratua Leire Valverde
errepideko langilea. |
| 6 | Zu zeu Iraitz Olaizola argi
teknikaria. | 30 | Plazan bazan |
| 8 | Nire leihotik Jon Olaizola,
<i>(Des)konektatzen</i> . | 33 | Iritzia Imanol Amiano,
<i>Azaroak hamaika</i> . |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga, <i>Eskolak:</i>
<i>maisu-maistrak</i> ; Txetxu Urbietta,
<i>Tik-tak</i> . | 34 | Atzera begira Landetako
motogurdia. |
| 12 | Elkarrizketa Aitor Arana idazlea,
itzultzailea eta hiztegigilea. | 40 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Gutuna</i> . |
| 18 | Erreportajea Atzegiren norbere
kasa biziteko programa. | 41 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 24 | Lehiaketa | 42 | Klik! Maria Goñi margolaria. |
| | | 46 | Iritziak Miel A. Elustondo,
<i>Emazteari bakarrik</i> ; Sara Amenabar,
<i>Bakarrik ezin</i> . |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarria@uztarria.eus
www.uztarria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Ebaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Jon Olaizola

Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbietta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Sara Amenabar
Leire Ibar

Arnaitz Rubio Aprea

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belandiera
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urtiarre 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

IRENE ALTUNA
JOMADENDIA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikunadenbika.com



**ERLOJU
KONPONKETAK**

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62





analisatzailea

Analisatzailea
fisika
kimika
biologia

Gestioi lanak
Finanzen administrazioa
Gestio lanabiltzarria

Tfn. 943 157 329 Faxa: 943 157 329
Beparra: 48-4. Ibaizabaldeko kalea 101



**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**



Aiortza Autook
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortzaaiortzaautook.com





EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA



adi
ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arredidatu@gmail.com
Matritula urte osoan zabalik



Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jun. 649 12 02 71
ikazargi@ika.es www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"



**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urut.: 943 81 57 81

Burruntzalia



MAILLO OIARZABAL

Euskararen egoeraren gaineko albisteak lantzea tokatu zait sarri udazken honetan. Udala egiten ari den Euskara Plana, Soziolinguistika Klusterrak iaz herrian egindako hizkuntzen erabileraren kale neurketaren emaitzak, Euskaraldia, Uemak Eustaten datuak oinarri hartuta egin duen azterketa... Eta ajeak eta lantuek nagusi, baita datuak bere hotz horretan onak edo oso onak izan direnean ere –Klusterraren emaitzak kasu–; non eta gurean, euskararen arnasmune izan eta gotorleku ziruditen paraje hauetan.

Euskarak Azpeitian eta inguruetan kuidorik ez duela pentsatuko dute askok, baina hizkuntzaren transmisioa misio eta kezka duten beste asko ez dira, ez, iritzi berekoak. Atzerrikik datozen bizilagun berriak euskarara ekartzeko bide eraginkorrak pentsatzea eta sortzea lan txikia ez, eta etxean euskara jaso duten haurrak eta gazteak auzo gertuko eta ez hain gertuko hizkuntza erraldoien lilurapean bidean ez galtzeko zer eta nola egin ere ebatzi behar; eta agudo, jakina baita nekez irabazitako apurra sueto galdu ohi direla.

Arlo garrantzitsu gehiegitan atzeraka ez ote goazen...

Nazionaletan ikasi nuen. Han alfabetatu nintzen, gaztelaniaz. Ez dut garbi gogoratzen, baina uste dut Lehen Hezkuntzako (OHO, garai hartan; EGB, alegia) azken mailetan baizik ez genuela izan euskara irakasgai, frantsesaren pare; *Lengua vernácula* zioen euskara irakasgaiari zegokion atalak noten liburuxkan. Institutuan, sortu berri samarra zen euskarazko adarrean ikasi nuen; a zer zailantzak erabakia hartzerakoan, *lengua vernáculako* eskoletan ondo moldatzen bainintzen, baina matematikak-eta euskaraz... Eta, bai, matematiketan desastre, baina berezkoa nuelako, gehienbat.

Lehen Hezkuntzako urteetara itzulita, gure eskolan hiru laurden euskaldunak eta laurden bat *kastellanoak* zirela esango nuke, kaleko garaiko ustearen arabera gurea erdaldunen eskola izan arren. Gela barruan ez bezala, gelatik kanpora gehiago egin nuen nik euskaraz *nazionaletan* institutuan baino. Eta *nazionaletan* ikasitako honek ez zuen ikasi burruntzaliari gaztelaniaz *cazo* esaten zitzaiola unibertsitate garaira arte; burruntzaliari *cazo*, eta lehengusu txikiari *primo segundo*, ez *primo pequeño*.

Gurean, belaunaldi gazteagoek etxean ez ezik eskolan, telebistan, herriko aldizkarian eta webgunean, kaleko hizkuntza paisaia... normal jaso dute euskara. Ez dakit inork azaldu dien normaltasun hori ez dela hain normala, gure hizkuntza gutxituaren historiari erreparatuta. Azalduz gero kezkatuko liratekeen ere ez dakit. Gustura jakingo nuke zenbatek dakiten burruntzalia nola den gaztelaniaz. ■■■

**'LENGUA VERNÁCULA'
ZIOEN EUSKARA
IKASGAIARI ZEGOKION
ATALAK NOTEN
LIBURUXKAN**

Iraitz Olaizola: "Lanbidea bera da, baina era berean, beti da desberdina"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **MAILO OIARZABAL**

Euskal Antzerki Topaketetan murgilduta zebilela erantzun zituen Iraitz Olaizolak (Azpeitia, 1985) Uztarriaren galderak. Kulturaz kooperatiban egiten du lan argi teknikariak, eta horrez gain, Brigade Loco, Rotten XIII eta Oxabi taldeen teknikaria ere bada.

Noiztik zabilta argi teknikari lanetan?

Luhartz erromeria taldearekin hasi nintzen, duela zazpi bat urte, eta lau urte daramatzat Kulturaz kooperatiban lanean. Betidanik gustatu izan zaidan mundua da. 2007an, DJ lanetan hasi nintzenean, jabetu nintzen ez zela soinuari bakarrik lotutako jarduna: fokuren bat erosten duzu, haren atzetik beste pare bat... Pixkanaka, harra indartzen joan zen. Aukera izan nuen mundu horretan sartzeko, aprobeixatu egin nuen, eta gustura nago.

Ikasketarik edo prestakuntza egin al duzu lanbide horretan aritzeko?

Ez, dena neure kabuz ikasten joan naiz. Youtubeko bideoak ikusi, foroetan sartu... horrela hasi nintzen. Denborarekin eta praktikarekin, gauza gehiago ikasten joaten zara.

Zein da argi teknikari baten egitekoa?

Ekitaldi batetik bestera aldatu egiten dira egitekoak. Antzerki Topaketetan, adibidez, hasi aurretik material guztia gainbegiratu eta doitu behar izaten da, fokuak zein kableak, denak ondo funtzionatzen duela ikusteko eta dena prest edukitzeko. Antzezlan bakoitzaren egunean, berriz, 08:00etan edo 09:00etan has daiteke lana, konpainiak eskatutako muntaia prestatzeko. Sanagustingo kontzertu batean, aldiz, taldeak ez badu teknikaririk ekartzen, mahaia piztu eta askoz gehiago ez da behar izaten, programatuta egoten delako; taldeak bere teknikaria eta bere mahaia ekartzen baditu, fokuen eta horien zenbakien berri ematea nahikoa izan daiteke, edo bestela, argiztapena programatzen lagundu behar zaie.

Zuretzat, zer ekitaldi edo ikuskizun mota da zailena edo ardura gehien eskatzen dizuna? Eta erosoena?

Zailena ez dakit, baina gogorrena, Euskal Antzerki Topaketak. Ordu asko izaten dira, egun asko segidan, eta lan pilaketa antzeman egiten da. Aldiz, Brigade Locorekin edo Rotten XIII-rekin aritzen naizenean, dena muntatuta edukitzen dut; mahaia jarri eta programazioa jarraitzea izaten da nire lana; errazena hori, esango nuke. Egundoko aldea dago, lan kargari dagokionez, ekitaldi batetik bestera.

Tokiek, espazioek, zenbateraino eragiten dute zure lanean?

Eragiten dute, bai. Adibidez, ekitaldia Sanagustinen izan ala Soreasun izan, batzuetan materialarekin atzera eta aurrera ibili behar izaten dugu. Ekitaldia aire zabalean bada, berriz, aurrez badakizu material guztia mugitu beharko duzula; beharko dituzun gauzak kontuan eduki behar dituzu, eta badaezpadaoak ere aurreikustea komeni da.

Argi teknikari baten lanerako zein da egokiagoa, Sanagustin ala Soreasu?

Ezaugarri desberdinak dituzten bi areto dira. Sanagustinen, argi gehienak muntatuta daude, lurrekoak bakarrik muntatu behar izaten dira; alde horretatik, lana errazagoa da. Soreasun, aldiz, ikuskizun bakoitzean hutsetik edo ia hutsetik hasi behar izaten dugu, eta ez da gauza bera antzerki bat argizatzea edo kontzertu bat argizatzea. Lan bera da, baina era berean, beti da desberdina.

Ikasten jarraitzeko aukera emango dizu horrek, ezta?

Hori bai. Horixe da Topaketen abantaila, asko ikasten dela.

Ba al dago ekitaldiren bat, tokiren bat, lan egitea gustatuko litzazukeena?

Bilboko Santanan edo Kafe Antzokian lan egitea gustatuko litzaidake, adibidez.

Disko jartzaile ibilia zara urte luzez. Jarraitzen al duzu DJ Referee izaten?

Jarraitzen dut, tarteka, baina gogo gutxiagorekin. Gaur egungo musika, niretzat, ez da musika; letra horiek, eta denbora guztian erritmo bera... Baina, zer egingo diogu, hori dago boladan. ■■■



(Des)konektatzen



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Egungo mundu kaotikoan, estresatuan eta lehiakorrean, zentzu guztietan oxigenoa ematen didan ezkutalekutzat dut basoa.

Zuhaitz bakoitzaren azalean, historia ezberdin bat, iragan ezberdin bat, liburu ezberdin bat agertzen da, nork irakurriko zain.

Txorien txio bakoitzaren soinuak, erritmo ezberdin bat, melodia ezberdin bat, kanta ezberdin bat agertzen da, nork entzungo zain.

Eguzki izpi bakoitzaren distiran, itzal ezberdin bat, testura ezberdin bat, kolore ezberdin bat agertzen da, margolana nork ikusiko zain.

Asko dira basoak mahaigaineratzen dizkidan estimulu ezberdinak, ondorio berera iristeko bada ere.

Zer polita den ezerezean galtzea, norbere burua bilatzeko. ■■■





Eskolak: maisu-maistrak

Atal honetan aipatu izan dut udalerrri txikiek zein landa auzoek nolako eraldaketa nozitu duten azken hamarkadetan. Populazioaren jendegabetzeak, nolabait esateko, gune horietako bizitza guztiz ukituta utzi du. Zerbitzu aldetik, maila batean autonomoak baziren –dendak, okindegiak, tabernak...–, gaur egun gutxitu edo falta dira horiek; adibidez, eskolak. Eta horixe da oraingoan otu zaidana: garaiko gure auzoetako eskolaz idaztea, gerra ondorengo hamarkadetako eskolez.

Jakina da, gerra ondoren, Francoren diktadurapean, dena kontrolpean zegoela. Bereziki heziketa munduari erreparatu zion militar satrapak. Errepublikak garaietan lortutako aurrerapenak guztiz zapuztu zituzten Mugimendu Nazionalaren printzipioek. Joxe Garmendia

Larrañaga Pedagogian lizentziatuak idatzitako bi liburu mardul bezain interesgarritan, sakon eta zabal islatzen da gerra aurreko eta osteko auzo eskolen mundua. Ondo dio esaten duenean "eskola berria ideologia faxistaren ispilua" zela. Gerra bukatu bezain pronto, errepresio itzela pairatu zen, batik bat Katalunian eta Euskal Herrian. Hainbat maisu-maistra hanka egin beharrean aurkitu zen; beste batzuk beren eskoletatik bidali zituzten. Gobernu Zibiletatik zetozen aginduak zorrotz bete beharrean aurkitzen ziren hezitzaileak, desterrua edo heriotz zigorra jasateko arriskuan baitzeuden. Garmendiaren liburuan jasotakoa da ondorengo; Gobernuaren aginduz, alkateak saiatu behar zirela maisu-maistrak hiru taldetan sailkatzen: "Guztiz antipatriotak eta gaztetxoak

kontzientzia asaldatzen zutenak; axolagabekoak edo beren jokaera ongi zehazteke zutenek, Mugimendu Nazional printzipioerikiko, alegia; eta guztiz Errejimenaren aldekoak. Beren karguetan berretsi izan behar zirenak". Era horretako aginduek luze iraun zuten, eta, ondorioz, eragin itzela izan zuen jende xumearengan. Testuinguru hartan, gure bailaretako udal herrixka zein auzo eskoletako maisu-maistrak gehienetan, Espaniako hainbat probintziatakoak ziren. Pentsa, Nuarben ezagutu izan genituen Palentziakoa, Leongoa, Avilakoa, Kanarietakoa, Murtziakoa, Zamorakoa, baita bi maistra nafar ere, baina ez ziren euskal hiztunak. Nahiz eta gehienetan ongi ikusiak eta errespetuaz tratatuak izan, kontuan hartu behar dugu gehienak erdaldunak eta bertakoak pentsaera

HAUXE BAI JENEROIA!



desberdinekoak zirela. Horregatik, batzuk ez ziren ongi ikusiak. Aizpurutxoarrak, adibidez, gogor kexatu ziren udalaren eta ikuskariaren aurrean. Zergatik? Bada, hainbat animalia espezieren ugalketa azaltzen zuelako eta ez zielako erakusten kristau ikasbidea, besteak beste.

Baziren eskolatzeko garaia bukatzen zenean –ohikoa jaunartze handia egindakoan, 12-13 urterekin– oso oinarri gutxi lortzen zituztenak. Hori da, behintzat, Juanjoxek kontatu didana, duela gutxi 90 urte bete dituen beizamarrak. Gogoan ditu –eta gogoan edukitzekoak dira– kontu haiek: "Goierritik etorritakoa zen gure maisua. Maisu izateaz aparte, udaletxeko idazkari kargua zuen. Lan asko zuen, eta lan horiek eskolan egiten zituen. Eta guretzat denbora gutxi... Gure ama jakinean zegoen zenbat ikasita

bukatu nuen, eta dozena urte inguru nituela, ikasturte osoz, gurasoek Nuarbeko maistrarengana bidali ninduten, ospe onekoa baitzen. Gure baserria Beizamatik ere urrun samar, eta pentsa Nuarbetik... Hara iristen ordubete inguru igarotzen nuen, eta gero, itzultzeko, igo egin behar. Horrela, egunero urte osoan. Beste ikasleak ordubatean irteten zirenean, ni partikular hartzen nindun Eibarkoa zen maistrak. Asko tematzen zen irakasten, eta oso baliagarria izan nuen ikasitakoa gerora, esaterako, gidabaimena ateratzeko".

Egun, auzo eskola hura historia bihurtu da, hurbila, baina historia. Eraikuntzek hor diraute; batzuk elkarte bihurtu dira, beste batzuk etxebizitza edo erakustoki. Baina eskola sostengatzen zutenak... falta dira! ■

HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Tik-tak

Hiru ahatetxoen urtea ere badoa. Tik-Tak, tik-tak, denboraren jarioak etenik ez du. Tik-tak, tik-tak, noizbehinka mantso, tik-tak, tik-tak, ia beti bizi, gero eta biziago, azkarrago. Asko duenak gero eta gutxiago du. Gutxi duenak ere bai, gero eta gutxiago du. Analogikoa edo digitalean, osasunez, luzaroan segi dezala tik-takak. Zutik, taka-takarik gabe bada, hobe.

Doanak gauza on gutxi ekarri du, eta datorrenak ere itxura onik ez du. Tristura da nagusi. Triste bizi naiz triste, eta hilko banintz hobe. Ez. Tristurak tristura, bizipoza berreskuratu behar dugu. Historiako belaunaldirik eskasena izan arren, gure aurpegietan irria tatuatzeko saiatu behar dugu.

Urtea amaitu aurretik, bizipoza berreskuratzeko, ariketatxo bat. Azpeitiarrak lotzen gaituen uztarran, azpeitiarrak azpeitiarrago, harroak harroak egoteko, hiru ahatetxoek urteak zer arrazoi eman digu? Urteko zein unetan sentitu zinen inoiz baino xapoago? Noiz esan zenuen "azpeitiarra naiz eta harro nago"?

Tik-tak, tik-tak, denboraren etengabeko jarioa. Harrotu nahi eta ezin harrotu. Urtean zehar gauza ederrak egin ditugu, baina egin dugun dena azpeitiar batek azpeitiar izate hutsagatik egin beharrekoa izan dela iruditzen zait. Forbeseke hamar aurrenekoetan ez gaude, santu berririk ez dugu, Nobelik ez digute eman eta Nasak ez du xaporik ilargira bidali. Eskerrak, inolako harrokeriarik gabe, isil-isilik, apal-apal, zientoka herritar saiatu den gertuko bizitza erosoagoa egiten. Zuetaz harro. Zuek nire bizipoz. Urte berri on! ■



"23 urte dira Nafarroako euskalkien liburuekin lanean hasi nintzela"

AITOR ARANA IDAZLEA, ITZULTZAILEA ETA HIZTEGIGILEA

21 urte zituela, erronkarierarekin maitemindu zen egun Urrestillan bizi den idazlea. Geroztik, Nafarroako hiru euskalkiri buruzko hiztegiak kaleratu ditu 'Lingua navarrorum' bilduman. Bukatzear du lan hori, baina ez dago esku hutsik Aranaren idazmahaia. Ehundik gora liburu ditu sortuta, eta beste asko itzulita. Labetik atera berri du 'Beldurrak airean' gazte literaturako liburua, eta hiru lan ditu argitaletxeetan aurkeztuta. Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga**.

Idazten, itzultzen eta hizteigintzan 40 urte daramatza Aitor Aranak (Legazpi, Gipuzkoa, 1963). 20 urte ingururekin ekin zion lanbideari, eta ordutik idazlea da Urrestillako bizilaguna. Ehun liburutik gora ditu sortuta, eta askotariko estiloak landu ditu horietan. Dioenez, idazketari lotuta, "nahi edo gogoa izan duen guztia" egin du. Zorionekoa da idaztea duelako lanbide eta bizimodu.


Mende laurden inguru da *Lingua Navarrorum* bilduma osatzen hasi zela. Sorta horrek XX. mendean Nafarroan galdu ziren hiru euskalki ditu langai: erronkaria, hegoaldeko goi-nafarrera eta zaraitzuera. Ibar bakoitzeko euskalkien hiztegiekin osatutako 22 zenbakiko bilduma da. **Zer helbururekin heldu zenion Nafarroako euskalkiak jasotzeko lanari?**

Bilduma horren helburua da euskara galdu baina dokumentatuta gelditu den toki horietako materiala hartu eta jendearen eskuetan jartzea, hiztegien eta ikasliburuen bidez. 25 urte inguru izango dira lan horrekin hasi ginela, eta pixkanaka-pixkanaka, hegoaldeko goi-nafarreraren azpieuskalkietako ikasliburuak ere

ateratzen ari gara. Zergatik? Arrazoia oso sinplea da: egun Nafarroako eremu horretan milaka euskaldun daude, euskaldun berriak, beren kasa ikasi dutenak, ikastetxeetan ikasi dutenak, beste lurralde batzuetakoak dituzten gurasoengandik ikasi dutenak... Eta ibar edota herri horietan bizi direnak eta bertako euskararen berri jakitea interesatzen zaienak ere badira: "Guk euskara batua badakigu, baina hemengo euskara nolakoa zen edo nolakoa da?". Poliki-poliki agertzen da interes hori baduen jende gaztea, eta horiek esan izan digute: "Ni Txulapaingoa naiz, eta hiztegia asko gustatu zait; oso interesgarria da". Jende horrentzako pentsatuta dago bilduma.

Nafarroako toki horietan euskaraz hitz egiten zela adierazi nahi duzu lanarekin, ezta?

Atzo arte euskaldunak izan ziren leku horiek. Hiztegien aurkezpenak edo hitzaldiak egiten ditudanean, bertakoei amonatzoen kontua ezagutzen al duten galdetzen diet. Amonatzoen kontua belaunaldien kontua da. Alegia, esaten da Jesukristoren garaitik gaur egunera amonatzoen 80 belaunaldi sortu direla: 80 amonaxo. Eta, adibidez, 80 belaunaldi horietatik 77-78 euskaldunak ziren Artaxoan edota Garesen. Gaur





Aitor Arana Iraurgi ikastetxearen Euskal Astean, 2007. urtean.

NEREA ARANGUREN

egungo biztanleek, ordea, azken 100-150 urteak ezagutu dituzte, euskararen galera ezagutu dute, eta horregatik uste dute beren herrian edota ibarrean ez dela euskaraz egin. Baina uste oso okerra da hori. Zorionez, horrelako lanei eta beste lan askori esker –Nabarralderen lana oso garrantzitsua da kontzientziazio kontuan–, Nafarroako eremu horretan dagoeneko ia-ia ez dago "hemen ez da inoiz euskararik egin" esaten

duen inor; ez bada euskararen kontra dagoenen bat. Zorionez, hori bukatu zen.

Non bildu duzu erronkaria, hegoaldeko goi-nafarrera eta zaraitzuera euskalkien hiztegi liburuak osatzeko dokumentazioa?

Ni ez naiz ibili horrenbeste dokumentazioa biltzeko lanean, baina beste batzuk bai. Esaterako, Koldo Artolak –ez da filologoa, baina oso euskaltzalea eta euskalkilaria da– eta Iñaki Caminok –filologoa eta Gasteizko Unibertsitateko irakaslea– bilketa lan handia dute eginda. Horiek Nafarroan herriz herri ibili ziren euskaraz zekien jendeaz galdezka, eta grabazio asko egin zituzten. Lan hori iturri oso ona izan da hiztegiak egiteko garaian. Haiek euskalkiak biltzen ibili ziren eremuetako hiztegiak lodiagoak atera dira. Adibidez, Erronkariko hiztegia 10.000 sarrerakoa da, eta Uxuekoak 1.000 sarrera dauzka. Zergatik? Bada, Erronkarin euskalkilari asko ibili ziren azken euskaldunekin grabazioak eginez, eta gainera, Erronkariko dokumentazio asko dago. Bestalde, Iruñea inguruan eta Iruñerri osoan eskolak ez ziren euskaraz ematen, baina bazegoen gauza on bat: erlijioa. Apaizak-eta segurtatu behar izaten zuten kristautasunaren mezua ondo helduko zitzaie hango herritarrei, eta orduan elebakarrak zirenez, euskaraz helarazten zieten mezua. Horri esker, doktrina asko eta asko geratu dira euskalkietan eta azpieuskalkietan idatzita, eta euskara galdu den eremu batean altxorra da doktrina, gramatika aldetik esaldi asko dauzkalako kausalak, erlatibozkoak eta abar. Nik asko landu ditut doktrinak, hiztegi aldetik 500 hitz edo gehiago edukitzen dituzte; oso iturri emankorra dira. Horiek dira iturri nagusiak, baina baita toponimia ere. Hiztegietan landu dugun eremua historikoki euskalduna izan da atzo arte, eta toponimia oso freskoa dauka. Toponimia ondo aztertuz gero, eremuaren arabera, 300-400 hitz atera daitezke.

Bi hamarkada dira Nafarroako euskalkien inguruko hiztegi eta ikasliburu bildumarekin lanean hasi zinela. Nolakoa izan da ibilbidea? Eta orain, zein unetan dago?

Mende honen hasieran hasi nintzen bilduma osatzen duten liburuak argitaratzen; Hiria argitaletxearekin atera nituen aurrenekoak, Aranburu editorearekin eta Nafarroako Gobernuaren zein Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Gero, etena egon zen, eta hiztegi horiei dirulaguntzak moztu zizkieten. Ondoren, berriro ekin nion nik, Koldo Colomo nafarrak



**"EUSKARA GALDU DEN EREMU
BATEAN ALT XORRA DA DOKTRINA
EUSKALKIAN JASOTA IZATEA"**

**"EUSKALKIAK ABERASTASUN
HANDIA DIRELA USTE DUT, HORTIK
DATORKIT ZALETASUNA"**

**"NORMALEAN, ZERBAIT
KOKOTEAN SARTZEN ZAIDANEAN,
HORI XE IDAZTEN DUT"**

lagunduta. 2019. urtean aldi berria hasi genuen biok, eta harrezkero, beste sei edo zazpi hiztegi atera ditugu; beste lau edo bost bidean dira. Denak bukatu arte jarraituko dugu, eta ez zaigu asko falta; Orbaibarkoa eta Eguesibarkoa falta dira egiteko. Badaukat lan hau bukatzeko gogoia; orain dela 23 urte hasi nintzen, eta lan handia izan da, baina oso pozgarria eta emaitza politak izan dituen.

Udal euskaltzalea egokitu zaigun tokietan oso erraz argitaratzen ditugu bildumarako liburuak, eta gainera, pozik hartzen dute egitasmoa. Udalak inplikatu egiten dira, eta Nafarroako Gobernuaren laguntza bideratzen dute hiztegirako. Gainera, beren udalaren armarraria jarri nahi izaten dute argitalpenean. Baina udalak euskaltzaleak ez diren herrietan, tokatu zaigu "euskara hemen soberan dago" bezalakoak entzutea. Horrelako kasuetan, zorionez, tokian tokiko euskara taldeak eta azaldu dira edizioa laguntzeko prest; kasu horietan, gure lana ez dugu kobratzen. Hiztegi bat egiteak ordu asko eskatzen ditu, kontsulta lan handia egin beharra dago eta dokumentazio lana oso garrantzitsua da; horretan bilketa lan handia egiten du Colomok.

Euskalkiei lotuta, hiztegiez aparte, baduzu beste proiektu bat esku artean: *Dorian Grayren erretratua* (Oscar Wilde) eleberria euskarara itzultzeaz gainera, nobela hori hainbat azpieuskalkitara itzultzen ari zara.

Nondik nora duzu euskalkiekiko zaletasun hori? Euskalkiak aberastasun handia direla uste dut; hortik datorkit zaletasuna. Etxean elebidun natiboak ginen: gure ama Burgoskoa [Espainia] zen, erdalduna, eta aita Zumarragako [Gipuzkoa], euskalduna eta euskaltzalea. Ni jaio nintzenean, 60ko hamarkadan, horrelako bikote mistoetan gurasoek gazteleraz egiten zieten seme-alabei, eta are gehiago aita euskalduna zen kasuetan; ama euskalduna eta aita erdalduna zen kasuetan, errazago transmititzen zuen amak euskara. Legazpin, nire belaunaldiko lagun asko eta asko, guraso euskaldunak izanagatik, erdaldunak izan ziren txikitan, nahiz eta berez euskaldunak izan beharko zuketeen. Eta, ondoren, 18-20 urterekin, haietako askok euskara ikasi zuten euskaltegian; hor eten handia izan zen. Baina, zorionez, gure aita euskaltzalea zen, eta nahiz eta Burgosko emaztea eduki, guri beti euskaraz egin zigun; etxean beti euskaraz egiten genuen aitarekin, eta gazteleraz, amarekin. Hori horrela, txikitan beti buruan izaten nuen zeinen desberdinak ziren bi hizkuntzak. Gero, Legazpiko

ikastola ireki zuten, eta 2 urte neuzkala, ikastolaren lehen urtean, hara eraman ninduen aitak; ikastolan ibili ginen anai-arreba txikiak. Erdarakadak esaten genituenean, aitak asko azpimarratzen zigun euskaraz ez zela modu hartan esaten. Gero, nerabezaroan, Oñatin [Gipuzkoa] ibiltzen hasi nintzen, eta konturatu nintzen Oñatiko eta Legazpiko euskarak bi mundu zirela; orduan, oñatiarrez ikasteari ekin nion. Handik urte batzuetara, Oñatira, Araotzera, joan nintzen bizitzera, eta orduan ikasi nuen hitz egiteko moduan; maila polita eskuratu nuen bizkaieraz. Ondoren, ordea, Azpeitira etorri nintzen bizitzera, asko galdu nuen bizkaiera, eta egun ez naiz ausartzen hitz egitera.

Beraz, aitarekin gipuzkeraz aritzen nintzen, ikastolan gipuzkera osatuan hasieran, eta gero, batua etorri zen; prozesu hori bizi izan genuen. Ondoren, Oñatiko euskararen murgildu nintzen, eta 21 urterekin, erronkarieraren berri izan nuenean, hizkera horrekin errotik maitemindu nintzen. Zergatik? Bitxiena delako eta mende baldekooi edo erdialdekooi euskalkirik exotikoena egiten zaigulako. Erronkarierarekin maiteminduta, Nafarroan murgildu nintzen, eta Erronkaritik Zaraitzura egin nuen jauzia. Izan ere, erronkarierarekin hasi nintzenean, hiztunik ez zuen; erronkaria hitz egiten zuen azken euskaldunarekin, Fidela Bernatekin, Koldo Artola egon zen, eta hark bildu zuen materiala argitaratu zen gero. Erronkaritik ondoko ibarrera jo nuen, Zaraitzura, eta han azken hiztunak bakarrik gelditzen ziren, bost bat. Bi hiztun on eta txar bat ezagutu nituen nik Zaraitzen. Zergatik txarra? Otsagabiako gizon bat zen, baina gaztaro osoan Iratiko oihanean zuberotarrekin lanean ibilitakoa, eta ez zuen egiten Otsagabiako euskara, zuberera baizik.

Euskalkiak eta euskara batua.

Nik ez daukat batere arazorik horretan.

Zuk euskara batuaz hitz egiten duzu.

Bai, aitarekin egiten nuen etxeko euskara, baina zoritxarrez, iaz hil zen aita, eta haren falta nabari dut, harekin egiten nituen elkarrizketak... Oso garbi ikusten dut euskara batua eta euskalkiak elkarren osagarri direla. Txikia nintzenean, eztabaida izan zen horren harira, baita 15-20 urte nituenean ere, *h*-a gora eta behera. Uste dut euskara batua ongi egin zela. Horrekin zer esan nahi dut? Beste herrialde askok egin zutena egin zutela Euskal Herrian ere; alegia, erdialdeko aldaerak hartu eta horiekin batua sortu. Beste toki

batzuetako bi adibide jartzearen: tokiera da japoniera batua eta erromaera da italiara batua, beste osagarri batzuekin. Gazteak ginenean entzuten genituen euskara batuaren inguruko eztabaidak, eta gu euskara batuaren alde geunden. Garai hartan hasi nintzen idazten, eta euskara batuan idatzi izan dut. Asko pozten naiz eztabaida hori gainditu zelako, baina horrek ez du esan nahi euskalkiak ez direnik kontuan izan behar; alderantziz, euskalkiek euskara batuaren iturri eta aberasgarri izan behar dute, zalantzarik gabe. Are gehiago, Azpeitian gaudenez, polita izango litzateke gazte jendeak Azpeitiko hizkerarako hartzen dituen hitzak euskara batutik hartzea. Esate baterako, inork ez du esaten nik dakidala *dizionayue*, *hiztegiye* esango dute. Oso normal hartuta daude horrelakoak, eta asko entzuten dira. Dena den, egia da, hitz asko eta asko erdaratik hartzen direla. Niri gustatuko litzaidake euskalkiek batutik gehiago hartuko balute, baina baita beste norabidean ere, elkarren osagarri izanez. Neurri batean badira, baina euskaltzaleak garenok gehiago izatea nahi dugu. **Hiztegi gintzan aritzeaz gain, itzulpen ugari egin dituzu.**

Literatura bakarrik itzuli al duzu?

Bai, literatura bakarrik itzultzen dut.

Itzulpengintzan literaturaren eremuan geratu nahi izan dut, eta zorionez, lana eduki dut hortik bizitzeko. Beraz, ezin naiz kexatu. Bokazioa izan dut literaturarako, eta hortik bizi naiz; jarraitzen dut lanak itzultzen, sortzen eta argitaratzen.

Hiztegi gintzan, itzulpengintzan... aritzeaz gain, zeuk sortutako liburu ugari ere baduzu argitaratuta. Beti al daukazu proiekturen bat esku artean?

Bai, bai. Une honetan bizpahiru argialetxetan ditut liburuak aurkeztuta; argitaratuko diren ala ez jakiteko zain nago. Neure sormenekoak dira hirurak: ipuinak eta eleberri bat. Orain dela gutxi *Beldurrak airean* argitaratu dut. Gazte literaturako liburua da hori, eta Ibaizabal argialetxeak kaleratu du. *Lidiaren betaurrekoak* helduentzako eleberria ere eginda daukat, baina oraingoz ez dakit non eta noiz kaleratuko den. Literatura erotikoko ipuin bilduma bat ere idatzita daukat. Horrez guztiaz gain, oso berri on bat jaso dut orain dela gutxi; Poloniatik etorri zait berri ona.

Eta zein da berri on hori?

Esperantoz badakit, idazten dut esperantoz ere, eta lan batzuk itzulita dauzkate esperantora. Euskal Herrian esperantoz idatzitako lan batzuk argitaratu izan ditut, baina halako batean



pentsatu nuen atzerriko argitaletxeren batera nire nobelaren bat aurkeztea esperantoz idatzita, ia argitaratzen zuten ikusteko. Jatorrizko lana euskaraz idatzita nuen, eta esperantora itzulita Poloniako argitaletxe batera bidali nuen. Orain gutxi, editorearen mezua jaso nuen posta elektronikoz, eleberria gustatu zaiela eta argitaratu egingo dutela esanez. Oso pozik hartu dut albiste; izan ere, hori izango da atzerrian argitaratuko didaten aurreneko liburua. Helduentzako eleberri bat da. Badirudi nobela horren itzulpena lehenago argitaratuko dela jatorrizkoa baino. Batzuetan horrela izaten dira gauzak.

Aurretik aipatu duzu ipuin erotikoen bilduma bat idatzita daukazula. Literatura erotikoa euskaraz gehien landu duen idazleetako bat zu zarela esaten dute. Beste idazle batzuk ere landu dute literatura erotikoa, baina egia da Txalaparta argitaletxearen *Literotura* izeneko bilduman hiru argitalpen dauzkadala: *Onan* izan zen aurrenekoa, *Gay hiztegia* egin nuen gero, eta ondoren atera nuen *Dorian Grayren egiazko erretratua*, Oscar Wilderen nobelaren bertsio pornoa. Baina garai batean nik gehiago idazten nituen ipuin pornoak,

orain zahartu egin naiz, urteak aurrera doaz... Hala ere, ipuin bilduma bat idatzita daukat.

Segi eta segi, orduan. Haur eta gazte literatura, helduentzako literatura, hiztegiak, ikas liburuak, saiakerak... Oraindik heldu ez diozun zer gustatuko litzazuke idaztea?

Horretan ez dut inoiz pentsatu. Normalean, kokotean zerbait sartzen zaidanean, horixe idazten dut, eta alde horretatik, aseta gelditzen naiz; zortea daukat. Ez zait egin nahiko nukeen eta egin ez dudanez ezer geratu. Jakina, nik abantaila bat daukat; zorionez, literaturan autonomia izateko aukera dut, eta nire lanordu guztiak sortzeko eta itzultzeko balia ditzaket.

Lan horretarako, ordea, diziplina handikoa izan beharko da, ezta?

Bai. Gaitz bat daukat. Etxean zera esaten didate: "Joder, Aitor, asteburuetan ere ez duk uzten lana!". Etxean egiten dut lana, eta etxean beti bistan izaten dut idazmahaia, baita mahai gainean ditudan lanak ere. Larunbatetan ere, tarte bat dudanean, idazten aritzen naiz, baita igandeetan ere. Eta hori gaitza da, egunero-egunero sartzen baititut ordu gehiago edo gutxiago lanean. Baina gustatu egiten zait daukadan lana, eta zer egingo diogu bada? ■■■

Bakarrik bizitzea posible delako



Adimen desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko helburuarekin, norbere kasa bizitzeko programa bat du martxan Atzegik. Azpeitian, lau pertsona ari dira egitasmo horretan parte hartzen: modu independentean bizi dira Felisa Bastida, Xabi Zubizarreta, Jose Joakin Zubizarreta nahiz Jose Mari Unanue, eta behar dutenerako ondoan dute Amaia Goitia Atzegiko langilea.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.



Usteek, aurretiazko iritziek, batek edo besteak esandakoek, belaunaldiz belaunaldi transmititutako kontuek, sarri-askotan errealitate ez diren gauzak sinetsaraztera eramaten dute gizartea. Uste erdi ustel horietako bat da adimen desgaitasuna duten pertsonak ez direla bakarrik bizitzeko gai, eta guztiek horretarako adina autonomia ez duten arren, zenbaitek badute gaitasuna beren kasa bizitzeko, egunerokotasunean modu independentean moldatzeko. Desgaitasun horren atzean gaitasun ugari ezkututzen delako, modu autonomoan bizitzea erabaki dute Felisa Bastidak (Tolosa, Gipuzkoa, 1962), Xabi Zubizarretak (Azpeitia, 1990), Jose Joakin Zubizarretak (Zumaia, Gipuzkoa, 1960) eta Jose Mari Unanuek (Azpeitia, 1967). Adimen desgaitasuna izanda ere, bakarrik bizitzea posible delako.

Horixe da Atzegik –adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak– ikasturte honetan martxan jarri duen sentsibilizazio kanpainaren oinarria: adimen desgaitasuna duten pertsonen nola bizi nahi duten erabakitze eskubidea



Jose Mari Unanue, eguneroko lanak egiten, bere etxean. UTZITAKOAK

aldarrikatzea. *Nire erara bizitzeko erronka* leloa baliatu dute gai hori gizarteratzeko, eta erronka hori lortzeko bidean, norbere kabuz bizitzeko programa du martxan Atzegik. Gipuzkoan, guztira, 57 pertsona ari dira programa horretan parte hartzen, 46 etxebizitzatan banatuta. Horiek modu autonomoan, independentean, bizitzeko hautua egin dute, eta egunez egun ari dira beren erara bizitzeko erronka hezur-haragiztatzen. Azpeitian, lau dira programa horretan parte hartzen ari direnak, eta laurak elkartu ditu hedabide honek, beren esperientzia ezagutzeko.

Denek nabarmendu dutenez, ez dute inolako arazorik eguneroko zereginak bakarrik egiteko: bakarrik jaikitzen dira ohetik, bakarrik moldatzen dira gosaltzeko, bakarrik hartzen dute autobusa lanera joateko... Lana amaitzean, erosketak egin ohi dituzte, lagunekin zerbait hartu... Ez dute inoren laguntzarik behar eginkizun gehienetarako, baina, pertsona guztiek bezala, babes behar dute zenbait egoerari aurre egiteko, eta horretarako, ondoan dute Amaia Goitia (Oñati, Gipuzkoa, 1995) gizarte hezitzailea; urte eta erdi inguru darama hark Atzegiren norbere kabuz bizitzeko programan lanean. "Programan parte hartzen ari den pertsona bakoitzak behar ezberdinak ditu, eta horiei aurre egiten laguntzen diet nik. Babes emozionala ematen diet, tramiteak egiten edo medikuaren kontsultetara lagundu, etxeko ekonomia apur bat zaindu...".

Goitiak eta programako kideek ez dute eguneroko harremanik, ez dagoelako horretarako beharrik, baina sarri samar izaten dute elkarren berri, beharren bat sortu delako edo zerbaitetarako laguntza behar dutelako. Telefonoz konpontzeko moduko kontuak

direnean, bide hori baliatu ohi dute, eta elkartzea beharrezkoa bada, Goitia programako kideengana joan ohi da.

Lau herritar, lau errealtate

Azpeitiko lau herritar ari dira gaur-gaurkoz Atzegiren norbere kabuz bizitzeko programan parte hartzen, baina haietako bakoitzaren errealtatea ezberdina da. Bastida eta haren seme Xabi, esaterako, elkarrekin bizi dira, udalaren etxebizitza batean. Ondo moldatzen dira beren kabuz: sukaldean aritzen dira, etxeko lanak egiten dituzte, erosketak egitera joaten dira, etxea garbitzen dute... Ez dute inolako arazorik zeregin horiek gauzatzeko, baina etxeko lanen kontuan babes pixka bat izateko, udalaren etxez etxeko laguntza jasotzen dute. Gainera, lanera joaten dira biak egunero; Xabi Azkoitiko Gureakera, eta Bastida Donostiako adinekoen egoitza batera, garbiketa lanak egitera. Autobusean joaten dira lantokietara. Eguneroko martxan ondo moldatzen direla azaldu du Bastidak, baina etxe guztietan bezala, beraienean ere egun guztiak ez direla berdinak adierazi du: "Elkarbizitza batzuetan konplikaturia izaten da, baina etxe denetako kontua da hori".

Xabiren aita da Jose Joakin Zubizarreta, baina hura beste etxebizitza batean bizi da, pisukide batekin; etxebizitza hori ere udalarena da. Haiek ere udalaren etxez etxeko laguntza jasotzen dute etxeko zereginekin laguntzeko. Jose Joakin ere egunero joaten da lanera, Azkoitiko Gureakera, autobusez.

Unanue, bestalde, bakarrik bizi da, berea duen etxebizitzan. "Oso ondo" moldatzen dela azaldu du: "Etxeko lanak egiten ditut; garbigailua jarri, sukaldean egin...". Dena den, Zestoako emakume baten laguntza jasotzen duela adierazi du; etxea garbitzen eta otorduekin laguntzen dio hark. Goitiak, bestalde, diru kontuekin laguntzen dio, batez ere. "Etxera iristen diren gutunak, kontabilitatea, diru kontuak... horiekin laguntzen dit Amaiak", nabarmendu du. Laguntza horrekin, "oso ondo" moldatzen dela dio: "Gustura bizi naiz. Behar bereziren bat daukadanean, badaukat norengana jo; babestuta sentitzen naiz".

Hainbat abantaila

Atzegiren programak hainbat abantaila dituela nabarmendu dute lau kideek; Bastidak, esaterako, horri esker, eguneroko bizimodua "errazagoa" zaiola adierazi du. "Batzuetan, ez gara gai gauza batzuk egiteko. Zenbait zereginetarako laguntza behar dugu, eta Amaiaren babesari esker, askoz errazagoa da egunerokoa. Arazoak konpontzen laguntzen digu. Besteak beste, erosketak egiten, medikuaren kontsultetara joaten...". Goitiak zehaztu duenez, medikuarenera ere bakarrik joan ohi dira programako kideak gehienetan, eta kontsulta bereziren bat baldin badute soilik lagundu ohi die hark, "babes gehiago behar dutelako".

Eguneroko arazoei aurre egiteko babes praktikoa ematez gain, babes emozionala ere eman ohi duela adierazi du Atzegiko langileak. "Izan ere, jendea bakarrik sentitzen da etxean. Batzuek bakardadea sentitzen dute, beste batzuek dolua gainditu gabe dute oraindik, konpainia falta sentitu ohi dute...". Halako kasuetan,

**GIPUZKOAN, NORBERE
KABUZ BIZITZEKO
PROGRAMAN 57
PERTSONA ARI DIRA
PARTE HARTZEN**

**PROGRAMAKO KIDEEK
EZ DUTE ARAZORIK
EGUNEROKO
ZEREGINAK BAKARRIK
GAUZATZEKO**



pertsona horien etxera joan ohi da Goitia, konpainia egitera, hizketan egitera, elkarren ondoan egitera.

Bakarrik bizitzea nahiago al duten galdetuta, Unanuek aipatu du berari "tokatu" egin zaiolako bizi dela horrela. "Nik nahiago izango nukeen familiarekin bizitzea, baina ingurukoak hil egin zaizkit, eta bakarrik bizi naiz orain. Hala eta guztiz ere, ondo moldatzen naiz bakarrik, eta gustura nago". Bastidak, aldiz, argi dio: "Gai garen bitartean, nahiago dugu horrela bizi". Jose Joakinek ere zalantzarik egin gabe dio etxe tutelatu batean baino nahiago duela bere kabuz bizitzea. Beraz, guztiek baieztatu dute modu independentean bizitzea dela beren nahia, beren hautua.

Oraindik ere jende asko harritu egiten da adimen desgaitasuna duten pertsona batzuk bikotean, lagunekin edo bakarrik bizi direla jakitean, baina errealitateak erakusten duena da geroz eta pertsona gehiagok erabakitzen dutela beren erara bizitzea. Eta horrela, beren erara bizita, "zoriontsu" direla baieztatu dute lau elkarriketatuek, nahiz eta "mundu guztiak bezala, egun hobeak eta okerragoak" izan ohi dituzten.

Gakoak: segurtasuna eta konfiantza

Goitiak badarama denboraldi bat Atzegiren norbere kabuz bizitzeko programan lanean, eta Azpeitiko lau kideekin lan egiteaz gain,

Gipuzkoako beste hainbat herritako pertsonekin ere aritzen da. Eguneroko lanean, pertsona horiei beren buruekiko "segurtasuna eta konfiantza" transmititzen saiatzen dela azpimarratu du. "Gai dira, eta horretan sinesten dugu. Aholkuak emateko babes txiki bat baino ez gara gu".

Programak orain arte egin duen ibilbidea ikusita, gauza bat argi gelditu dela dio Atzegiko langileak: proiektua "beharrezkoa" zela. "Askotan, ez dugu ikusten adimen desgaitasuna duten pertsonak gaitasunik dutenik. Zera esaten dugu sarritan: 'Eskubidea bai, baina gaitasunik ez dute bakarrik bizitzeko'. Gezurra da hori". Haren arabera, Atzegiren proiektuaren bidez, adimen desgaitasuna duten gero eta pertsona gehiago animatu dira bakarrik bizitzeko pausoa ematera, edo behintzat, beren buruei honako galdera hau egiteko aukera eman zaie: "Nola bizi nahi dut? Norekin? Eta non?".

Orain, gainera, formakuntza saio batzuk jarri ditu martxan Atzegik, adimen desgaitasuna duten pertsonen zuzenduta, horiek bizitza independente baterako gaitasunak lor ditzaten. "Oraindik bakarrik bizi ez direnei zuzendutakoa izango da formakuntza, horiek bakarrik bizitzeko gaitasunak beregana ditzaten. Etorkizunean modu autonomoan bizitzea behar badute, horretarako gaitasunak izan ditzaten da helburua", adierazi du Goitiak. Urrian hasi ziren formakuntzarekin, eta ekainera bitartean egingo dituzte saioak. Gipuzkoan, 39 bat pertsonak eman dute izena, eta dagoeneko ari dira horiek ikastaroan parte hartzen. Atzegik, beraz, badauka datozen urteetan ere bizitza independente baterako zimenduak jartzen jarraitzeko asmoa, eta horren alde agertu da Goitia: "Uste dut hori dela jarraitu beharreko bidea, guztiz".

Haren lanaren bidez, zenbaiten eguneroko maldak leundu egiten dira, eta laukoteak asko eskertzen du Goitiaren babesa. "Oso ondo moldatzen gara berarekin", dio Bastidak. "Behar dugunerako hor dagoen lagun bat da", erantsi du Unanuek. Gizakien arteko harremanen oinarria, ordea, hartzea ez ezik, ematea ere bada, eta Goitiak dio asko jasotzen duela eguneroko lanean. "Oso profil ezberdinetako pertsonak ikusten ditut lanean, gauza bera egiteko mila modu daude, etxe bakoitzak bere kontutxoak ditu, eta horrek asko betetzen nau; izan ere, aberastasun eta aniztasun handia ikusten dut. Lotura berezi bat sortzen da pertsona bakoitzarekin, eta lotura hori oso aberasgarria da niretzat; altxor bat da hori". ■

**ZENBAIT EGOERATAN
BABESA BEHAR DUTE,
ETA HALAKOETARAKO,
ONDOAN DUTE
AMAIA GOITIA**

**GUZTIEK BAIEZTATU
DUTE MODU
INDEPENDENTEAN
BIZITZEA DELA BEREN
NAHIA, BEREN HAUTUA**



bertako-REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

ORDTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Guretz mantentze- lan profesionalari
- Guretz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA
943 903 450

www.bertako.eus



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara abenduaren 16a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Azaroko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 35. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Ane Alberdi bazkidea izan da irabazlea; haren gertukoek jaso dute saria.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeke berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

"ARNASETIK" BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arastoaren atzetik euskararen arnaguneetara bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteak zuzendu zale, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleei ere. Lehiaketaren lehen



10-16 urte bitarteko gazteak zuzendu zale.

99 lan jaso dira eta kalitatea azpimarratzekoa izan da.

Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei esperientzia berriak eskaintzen jarraitzeko asmoa du.

edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria

bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenari lotuak.

Arnasa Gara ekimena

euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduzko helburuarekin jaso zen, UEMAk, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gazteak izan ditu jomugan, haien hizkuntza-ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko.

Info gehiago: www.arnasagara.eus

OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BILKER

K
KARRERA

eto
ETX

✻
MARTIN

KH
KOLA KOSTAKO
KETA

LI
LITARRA

Zh
ZAHARRA
ZETA

"Harriidura sortu zuen emakume bat lanbide honetan hasteak"

LEIRE VALVERDE ERREPIDEKO LANGILEA

Euskal Herrian ez dira asko izango errepideko mantenu lanetan aritzen diren emakumeak, baina horixe da Leire Valverderen ofizioa. Esfortzu fisiko handiko lanbidea izateko fama du, eta hori zenbait unetan hala dela baieztatu duen arren, ogibidearen oinarriak "koordinazioa, elkar ezagutzea eta errespetua" direla dio.

Testua: **Leire Ibar**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Leire Ibar eta utzitakoak**.

Gaur egun errepideko mantenu lanetan diharduen Euskal Herriko emakume bakarrenetarikoa da Leire Valverde (Azpeitia, 1972). Iaz erabaki zuen erabat maskulinizatutako sektore horretan lanean hastea. Nahiz eta Gipuzkoan gizonezkoek soilik egiten dituzten lan horiek, Valverdek aipatutakoaren arabera, modu "guztiz naturalean" eman zuen lan horretan hasteko pausoa. Beti jardun izan du historikoki gizonezkoenak diren lanetan, izan eraikuntzan edota errepideetako teknikari moduan. Gauzak horrela, hark azaldu du, lan hori hautatzerakoan ez zuela atzera bota emakume bakarra izan zitekeenaren auziak.

Urte luzez errepideko teknikari laguntzaile izan ostean, errepideko mantenu lanetan aritzen da egun Valverde. Oinarrian zerikusi handia duten bi lan badira ere, lanbide batetik besterako jauzia "aldaketa izugarria" izan dela azpimarratu du, lehen ikuskatzen zituen lan horiek gauzatzen baitabil egun. Esfortzu fisiko handiko lana da aipaturikoa, goizetik hasi eta eguerdira arte mendiko errepideetan jarduten baitute lanean.

Hala eta guztiz, azpeitiarrak aditzera eman duenez, gaur egun lan fisiko horiek erregularitzatu egin dira. Gainera, astez asteko programa bat daukate, lanak txandakatzeko. Lehenengo astean, eskulana tokatzen zaionean, "egurra" jasotzen dutela adierazi badu ere, hilabetearen hurrengo hiru asteetan lan arinagoak gauzatzen ditu; makinak kontrolatu, kamioia gidatu edota seinaleztatze lanetan aritu, esaterako.

"Lanean hasi behar nuen lehen egunean, 'Leire, zeinen ausarta!' esan zidaten, eta beldurra sartu zitzaidan. 'Nora noa?', pentsatu nuen. Niri ez zait iruditzen besteak baino ausartagoa naizenik; lanbidea gustatzen bazait, zergatik ez naiz horretan arituko?". Hala eta guztiz, ogibide horretan lehen "astakeria" ugari egiten zirela jakinarazi du; azken urteotan, ordea, lesioen zein lan istripuen kopuruek beheranzko joera hartu dute. "Gaur egun, erabat zaintzen dira protokoloak zein prebentzioko sistemak. Lankideek kontatu izan ditae orain dela urte batzuk bide seinaleak egoki jartzeari ez zitzaiola garrantzi handirik ematen". Orain, aitzitik, protokoloa jarraitu eta beti bermatzen da

Leire





gutxienez bi pertsona aritzea seinalizazio lanetan, arriskuak saihesteko. "Inoiz ez gara seinalizazio egokirik gabe egoten". Orokorrean, errepideko erabiltzaileek seinaleak errespetatzen dituztela eta tentuz gidatzen dutela adierazi du, baina haren arabera, "ezin da ukatu" autoen joan-etorriaren erdian egoteak arriskua eragin dezakeela.

Talde lana

Errepideko mantenua historikoki gizonetzkoekin eta indarrarekin lotu izan den lanbidea bada ere, Valverdek argi du lan horren gakoak "koordinazioa, elkar ezagutzea eta errespetua" direla. Izan ere, milaka egoera tokatu ohi zaizkie errepidean, eta horiei aurre egiteko, lan mota anitz gauzatu behar izaten dituzte. "Ez da gauza bera ehun kiloko lankide batek hamabost kilo inguruko sasiak garbitzeko makina eramatea eta 60 kiloko batek pisu berbera eramatea. Baina kamioi azpira sartu behar izanez gero, ni sartu egingo naiz. Elkarlana da lanbide honen oinarria". Zenbait unetan ausarta izatea ere beharrezkoa dela adierazi du azpeitiarrak. "Erronka bat ere bada, edozeinek ez bailuke kamioia edo elurra kentzeko makina gidatuko".

Emakume gutxi dira sektore horretan lan egiten dutenak. Valverderen esanetan, lan teknikoetan ari direnak eskulanean aritzen direnak baino gehiago dira; ni naiz Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat errepideko mantenu lanetan ari den lehen emakumea". Azpeitiarrak jakinarazi duenez, hasieran harridura sortu zuen emakume bat lanbide horretan hasteak, baina gaur egun "guztiz naturala" da egoera. "Jendeari arrotza

egiten zitzaion emakume bat lan horiek egiten ikustea, eta ondorioz, ugari izan dira entzundako komentarioak eta bizi izan ditudan pasarteak". Hala eta guztiz, azpimarratu du inoiz ez duela "lekuz kanpoko edo intentzio txardun" iruzkinik jaso, inkontzienteki eta harriduraz eginikoak baizik. "Neuk ere ez nuen espero hainbesteko harridura sortzerik".

Erreferenteak

Valverderen esanetan, beharrezkoa da plano teorikotik irtetea; izan ere, azpimarratu du teoria gizarte osoak dakiela, baina praktikan asko dagoela ikasteko eta hobetzeko, horrek ahalbidetzen baitu hainbat egoera barneratzea eta horien aurrean nola jokatu jakitea. Horren adibidea da aldagelekin gertatutakoa. Izan ere, orain arte gizonetzkoak soilik ziren lanbide

Leire Valverde

- **Jaiotze data:** 1972ko martxoaren 29a.
- **Ikasketak:** Eraikuntzako goi mailako zikloa.
- **Lanbidea:** Errepideko langilea.
- **Errepideko langilea ez banintz...** argi daukat aire librean egiten den beste lanbide batean arituko nintzatekeela.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** atseden hartzea eta surf egitea.



horretako plantilan, eta aldagela bakarra zegoen; ez zegoen emakumeentzakorik. Behar hori ikusita, hainbat herritan aldagelak egiten hasi ziren. "Batek pausoa ematea nahikoa da aldaketak egin eta datoztenei bidea irekitzeko", esan du Valverdek. Izan ere, handik sei hilabetera, beste emakume bat hasi zen lanbide berean Gipuzkoan. "Ezinbestekoa da erreferenteak izatea, norbait ikusiz gero, askoz ere errazagoa baita norberak pausoa ematea. Asko betetzen nau beste pertsona batzuei lagun diezaiekedala ikusteak", erantsi du.

"Plano teorikoan guztiok argi ditugu gauzak, baina praktika falta da. Guztiok egiten ditugu akatsak, eta prozesua luzea bada ere, akats horietatik ikastea da garrantzitsuena. Izan ere, akatsak nahi gabe egiten ditugu sarritan", dio

azpeitiarrak. Horren harira kontatu duenez, palarekin lanean ari zen batean, autoz zihuan 60 urte inguruko emakume batek honako hau esan zion seinalearekin zegoen lankideari: "Aizu, emakumea da. Hartu zuk pala eta laga iezaiozu seinalea". Lankideak ezetz erantzun zion, lanak txandakatu egiten zituztela eta aste hartan berari tokatzen zitzaiola zeregin hori gauzatzea. Valverderen esanetan, gustuko gauzei heldu eta aurrera jarraitzea da garrantzitsuena, "beti" egingo baitituzte begiradak eta iruzinak. "Begiratu nahi bagaituzte, begira gaitzatela". Ildo horretatik, Valverdek adierazi du sarritan emakumeek gehiegi eskatzen dietela beren buruei, eta horren aurrean, "hanka sartzeko" gizonak bezainbesteko eskubidea dutela adierazi du. ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Airetxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es



Joan-etorria

Horra trenari goian badao, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Bakoitzari berea

Pertsonei hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.



Handienetik txikienera

Ordene itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienera 8 emanaz.

Sudokua




Trenari BULTZI ere esaten zitzaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta are bakoitzeko.



Itzala

Ui... Trena
galduko duela
ematen du,
baina zein
da bere itzal
zuzena?



Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkererantz doa. 2) Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IZAN IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

UZTARRIA

LAGUNTZAILEA



Elizabetea Foru-Iturria



Azaroak hamaika



IMANOL AMIANO

Iren 11n –hamaika ikustekoak gara, bai, baina ez da Onceren iragarkia–, HABEren idatzizko azterketaren emaitzak argitaratu ziren; batzuk haserre, gainditu ez dutenek izan zuten *kejie eta destitxie*; beste batzuk, sufrikario ez makala pasatuta asko, zoratzen, *GAI* irakurrita pantailan. Euskaraldia amaitu berri, abenduaren lehenengo asteburu honetan izan dugu *ahobizien* gaitasuna neurtzekoa; santotomasetan, baserritar mozorrotuta, titulu lortu berria ospatzen ari direnak ikusiko ditugu, baina, belarriak prest ala ez, berriro entzungo ditugu "nolatan ez *gai* azpeitiarra izanda?" bezalakoak, talopean.

Euskalduntasuna – *euskaraduntasuna*, alegia– neurtzearen beharra ezbaian jartzen dutenei galdetu beharko diegu hain gorrotagarri diren azterketa eta titulurik gabe zer espero dezakegun. Pista bat: hemendik aurrera udaltzainei ez zaie euskararen erabilerarik –zer erabilerarik, ezagutzarik!– eskatuko, diskriminatuak izan ez daitezzen. Hori bai, 1,65

metro baino gutxiagoko mutilek eta 1,60 azpitiko neskek ez dute *munipa* izateko eskubiderik izango. Ez binarioek, auskalo.

Hamaika ikustekoak ginen, bai, hamaikaren hamaikatik aurrera, Pantailaldian: nik *Berririk ez mendebaldeko frontean* (*Im Westen nichts Neues*) ikusi nuen, alemanezko jatorrizko bertsioan –ukrainarrez eta portugaldar *brasileiroan* badagoen arren–, euskarazko azpitoluekin (Netflixen, ez Hamaika Telebistan). Alemaniar soldadu gazte baten ibilerak kontatzen ditu Lehen Mundu Gerran –kontuz, *spoillerra* dator–, 1918ko hamaikagarren hilabetearen 11n, 11:00etan, armistizioa indarrean sartzearekin batera hiltzen

**BASKONIKOZ EDO
EUSKARABIGOZ,
ZORIONEKO ESKUAK
ATERA GAITZALA
GAITZETIK, (H)AMEN**

duten arte. Hamaika ikustekoa nintzen, baina, onar dezadan, bakarra izan da.

Egun gutxi batzuk geroago, "im Osten gutes Neues" izan genituen; mendebala bailitzan, hautsak harrotu dituen *sorioneku* haizetea ekialdeko frontean; duela 2.000 urteko *eskualdian* ez bezala, albiste onik ez dugu, ordea, gaur egungo euskararen frontean: Euskaraldiaren bezperan emandako erabilera datuen zaplaztekoak etsipena sortu dute, akuilua izan beharko luketenean, baina ez gurean, non inguruko fronte guztietan ez bezala, %80tik gorakoa omen baita kaleko erabilera. Bai ote?

Bueno, honaino txapa. Apotropaikoa omen Irulegiko eskua; hots, eguzki loreak bezala, etxeko atarian iltzatuta, barrukoak babesten dituen edo kanpoko gaitza uxatzen duen objektu sinbolikoa; Ekialde Hurbileko eta Afrika iparraldeko herriek erabiltzen zuten Fatimarena bezalakoa. Baskonikoz edo euskarabigoz, zorioneko eskuak atera gaitzala gaitzetik, (h)amen. Hamaika ikustekoak izango gara eta. ■■■

Bizipenez eta oroitzapenez betetako motogurdia

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

JULENE FRANTZESENA

Batzuek jakingo dute; besteek, agian, ez. Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoan bada historia luzea duen erlikia bat, trenarekin zerikusirik ez duena. Hain zuzen ere, museoaren sarreran, harreraren bestaldean, motogurdi urdin bat dago kokatuta duela bi urtetatik. Aspaldikoa da, 1957koa; historia luzea du, eta istorioak ere mila gordetzen ditu gurpilen gainean. Horiek jasotzeko Maria Jesus Zubizarreta (Azpeitia, 1949) eta Julian Lazkanok (Azpeitia, 1946) senar-emazteekin elkartu da Uztarrria, motogurdiaren jabearen alabarekin eta suiarekin.

Museoan dagoen motogurdi horrek bazuen jabe bat: Jexux Zubizarreta. Haren aita Azkoitiko Martirieta auzokoa zen, eta ama Azpeitiko Atxumarri baserrikoa, baina Albizturren [Gipuzkoa] okindegi bat saltzen zegoela eta, hara joan zen bizitzera eta lanera. Duela 99 urte Azpeitira itzuli zen, okindegi bat zabaltzeko aukera suertatuta, haren alabak azaldu duenez. Halaxe,

Landeta hiribidean zabaldu zuen okindegia.

Zubizarretaren aitak hainbat urtez baliatu zuen museoan dagoen motogurdia Landetan egiten zuen ogia herriko beste zenbait gunetara banatzeko, baita zaharragoa zen beste halako ibilgailu bat ere. Bigarren ibilgailu hura okindegian lan egiten zuen Eugenio Olaizola *Xoxok* erabiltzen zuela gogoratu du Zubizarretak. "Xoxok Sanjuandegi eta Loiola aldean banatzen zuen ogia, eta Azpeitiko gainerako eremuetako banaketak aitak egiten zituen". Urte luzez erabili zituzten bi ibilgailu haiek, egunero-egunero ogia banatzeko. "Pentsa, neska koskorra nintzela, Jesuitinetara motogurdiari jarritako apala txiki batean eserita joaten nintzen aitarekin", oroitu du alabak.


Ibilgailuak "praktikoak" zirela azaldu du Zubizarretak.

**"TOLDOA IREKI ETA
NUARBEN EGINDAKO
ZUMETZEZKO
OTARRETAN JARTZEN
ZITUZTEN OGIAK"**

"Toldoa ireki eta Nuarden egindako zumetzezko otarreetan jartzen zituzten ogiak". Denboraren joanarekin, baina, motogurdietako batek pott egin zuen, eta autoak hasi ziren halako ibilgailuak ordezkatzeko. Landetako okindegikoen kasuan, bi *dos caballo*sek ordezkatu zituzten motordun gurdiak. "Autoekin alderatuta, baldar samarrak ziren motogurdiak", azaldu du Lazkanok. Baina aurrerapena ere baziren ibilgailu haiek, aurretik erabiltzen zituzten garraibideak zaldiak eta gurdiak zirela kontuan hartuta. "Gurdi haren farola, zaldien txintzarriak eta abar gordeta ditut etxean... Orain gauza horiek ikusten ditugu, eta badirudi ez dakit noizkoak direla, baina gure aurrekoek erabili zituzten", adierazi du Zubizarretak.

Ogiarekin fina zen Zubizarretaren aita, eta ofizioa bokaziozkoa zuten familian; izan ere, Landetako okina ez zen izan ogibide horretan aritu zen anaia bakarra. Aitagarreba ogiarekin "aparta" zela oroitu du Lazkanok. "Sasoi batean kanpora joaten nintzen lanera, eta herriren batean ogia ikusiz





gero, etxera ekartzen nuen. Ez dakizu nola aztertzen zuen; usaindu, probatu... Ogizalea zen, oso".

Berritzeko erabakia

1998an hil zen Zubizarretaren aita, motogurdia hainbestetan gidatu zuen okina, eta 2.000. urtearen bueltan otu zitzaion alabari ibilgailu hura garajea hutsa hartzen uztea baino hobe zela zaharberritzea. "Garajea genuen, herdoilduta zegoen, eta Maria Jesusek esan zidan berritu egin behar zuela. Motorra ere izorratuta zuen; izan ere, hogei bat urte baziren geldirik zegoela", azaldu du Lazkanok. Eman zizkien bere lanak motogurdia berritzeko prozesuak: "Hasieran ez genuen hura berrituko ziguten lekurik aurkitzen, baina halako batean, Asteasun [Gipuzkoa] halako konponketak egiten zituen gizon bat bazela esan ziguten". Angel Ortiz zen gizon hura, "ezaguna" askorentzat; Nairobitarra autobus famatuaren –1980an Tolosatik 1980 Nairobira bidaiaria egin zuen– mekanikoa zen. "Bi urteko lanaren ostean, hark jarri zuen martxan gure motogurdia. Abenturazalea zen, eta ahal zuenetan aritzen zen ibilgailua konpontzen". Martxan jarri bai, baina toldorik ez zuen artean, eta jatorrizkoa erreta-eta zegoenez, berria egitea erabaki zuten. "Toldo berria egin zezakeen aitona zahar bat aurkitu genuen Donostian; toldo elegantea egin zuen gizonak", azaldu du Lazkanok. "Kategoriako

lana" egin zuela gaineratu du Zubizarretak.

Konpondu orduko, berriz ere garajea gorde zuten motogurdia, "plastikopean estalita", honda ez zedin. "Lehengusuen bazkari batean motogurdiaz hasi ginen hizketan, eta Maria Jesusen lehengusu batek esan zuen Aldundiak Irunen [Gipuzkoa] bazuela halako ibilgailuen biltegi bat. Beste lehengusu batek, ordea, Burdinbidearen Euskal Museoa aipatu zuen, eta hark museoko kideekin hitz egin zuen handik egun batzuetara". Gustura hartuko zutela eta, dohaintzan emateaz hitz egin genuen museoko ordezkariekin, eta ordutik han dago ibilgailua ikusgai", adierazi du Lazkanok.

Motogurdia museoan dagoen bi urte hauetan, Zubizarretak izan du haurra zela eskolara joateko baliatzen zuen ibilgailua probatzeko aukera. Irailean ibili zen motogurdian, trenen ondoan, "poliki" antzean, haren hitzetan. "Hala esan nion gurekin egon zen gizonari: 'Hau lehen azkarrago ibiltzen zen, e?'. Eta hark esan zidan ezin zuela azkarrago ibili eremu hartan", azaldu du barrez. Motogurdiaren abiadurarekin akordatzan zen Zubizarreta, baita beste hainbat oroitzapenekin ere, eta atzera begira jarrita, "izugarritzko

tristura" sentitzen duela esan du. "Egia esan, museoan ikusi nuenean, 'zeinen ederki dagoen', esan nuen. Izan ere, etxean guk ikusten genuen, baina banekien hura ez zela ibilgailu harentzako tokia; merezi zuen beste zerbait. Alde horretatik, poza sentitzen dut, baina garai bateko gauzekin akordatuta, pena ere bai".

Dohaintza "zoragarria"

Burdinbidearen Euskal Museoan "gustura" hartu zuten Lazkano-Zubizarreta familiaren dohaintza. Izan ere, museoko protagonista nagusiak trenak baldin badira ere, bestelako hainbat tresnak, ibilgailuk eta erlikiak ere badute lekua han. Juanjo Olaizola museoaren zuzendariak azaldu duenez, "zoragarria" da motogurdia bezalako dohaintzak jasotzea,

"MOTOGURDIA MUSEOAN IKUSI NUENEAN, 'ZEINEN ONDO DAGOEN', ESAN NUEN"

"TARTEAN BEHIN MARTXAN JARRI BEHAR IZATEN DUGU, GARRANTZITSUA DELAKO ZAINTZA"

are gehiago, "konponduta eta martxan ibiltzeko moduan" eskuratzea. Gainera, haren arabera, badu berezitasun bat ibilgailuak. "Motor berezia du, bi pistoikoa eta kamera batekoa. Beraz, berezia da teknologia aldetik".

Museoaren harreran ikus daiteke motogurdia, han du bere txokoa. Olaizolak esan duenez, bisitariak begiratzan diote ibilgailuari museora sartzen direnean. "Tartean behin martxan jarri behar izaten dugu, garrantzitsua delako horrela zaintzea, eta ibilgailua martxan ikusten duten bisitariak buelta bat egin nahi izaten dute bertan", azaldu du barrez. Gainera, motogurdia herriko historiaren zati ere badela adierazi du hark, eta horregatik garrantzitsua iruditzen zaio ibilgailua Azpeitian gordetzea.

Tartean behin halako opari sorpresak jasotzen dituztela adierazi du museoaren zuzendariak. Hain zuzen ere, Uztarriak adierazpen hauek hartu zituen egunean Gasteizera joan zen Olaizola Seat 600 baten bila. "Trenaren museoa da gurea, baina trenbidea zergatik sortu zen ere azaltzen dute halako ibilgailuek; izan ere, motorizazioaren lehen urratsak motogurdiak egin zituzten, eta gero Seat 600ek. Horiek katebegi garrantzitsuak dira motorizazioaren historian". ■

MiYOSMART, seme-alaben miopia tratatzeko modu adimentsua



gehiago
pasatzen
dugu gailu
digitalen aurrean

Haurrek miopia izan dezakete kornea oso lodia edo oso kurbatua dutelako, nahiz begiaren tamaina normala baino handiagoa delako.

Miopia izateak ez du esan nahi arbela, telebista edo kaleko kartelak ondo ez dituztelako ikusten bakarrik eraman behar dituztenik betaurrekoak edo lentillak. Miopia izateak esan nahi du begietako gaixotasunak izateko arrisku handiagoa dutela, eta horiek garaiz tratatzen ez badira, ondorio itzulezinak izan ditzaketela. Zenbat eta miopia handiagoa izan edo gehiegizko esfortzu gehiago egin, orduan eta aukera handiagoa izango dute etorkizunean kalteak jasateko. Halaber, ez dugu ahaztu behar miopia mailarik txikiena dutenek ere badutela arrisku hori.

Gero eta denbora gehiago pasatzen dugu espazio itxietan, eta gero eta denbora

adin goiztiarretan. Duela hogei urte, 5 eta 7 urte bitarteko 40 haurretik batek zuen miopia; gaur egun, berriz, bostetik batek. Eta etorkizun hurbilenak ez du itxura hoberik; izan ere, aurreikusten da munduko biztanleriaren erdiak miopia izango duela 2050erako.

Haurren bizimodua nola ari den aldatzen ikusita, ahalik eta azkarren konfiantzazko ikusmen profesionalarekin hitzordua hartzea komeni da, eta hitzordu horiei jarraipena eman.

Miopia tasaren eta haren konplikazioen igoeraren aurrean, MiYOSMART tratamendua sortu da, konponbide gisa. MiYOSMART tratamendu ez inbaditzailea da, segurua eta eraginkortasun handikoa, ikerketa kliniko zorrotzetan oinarritua. MiYOSMART betaurrekoetan aplikatzeko diseinatuta dago, eta haren estetika umeez aurretik

eraman
izan

dituzten betaurrekoena bezalakoa da.

Irtenbide hori miopia tratatzeko erabiltzeaz gain, haurrek hainbat gauza izan beharko dituzte kontuan: egunean gutxienez bi ordu igaro behar dituzte kanpoaldean, ahal dela eguzkiaren argipean; testuak eta objektuak gutxienez 30 zentimetro urrundu behar dituzte; gailu digitalen erabilera mugatu behar dute, eta atsedenaldiak egin behar dituzte jarduera luzeak gauzatzean.

ADI OPTIKA MiYOSMART zentro akreditatua da. Zure seme-alabak miopia badu edo miopia izan dezakeela uste baduzu, zatoz bisitan eta tratamendu iraultzailearen berri emango dizugu. Bi milioi MiYOSMART lente baino gehiago erosi dituzte mundu osoko gurasoek, patentatutako D.I.M.S. teknologian konfiantza baitute. ■■■



HOYA
FOR THE VISIONARIES

%60
murrizten du
miopiaren
garapena

**MiYOSMART. Miopiaren zaintza,
haurrei eta nerabeei zuzenduta.**

Ezerk ez dezala aurrera egitea oztopatu;
mantsoitu zure miopiaren garapena.

MiYOSMART haurrentzako zentroa gara. Eska iezaguzu informazioa Adi optikan.

 **adi** optika / audio
zentroa
www.adi.eus

Jose Artetxe Kalea, 21
20730 Azpeitia, Gipuzkoa.
Tel.: 943 15 75 74

Gutuna



IONE GURRUTXAGA

Olentzero eta Mari Domingi maiteak, Orain gutxi arte eguraldiak halakorik pentsatzeko tarterik eman ez badigu ere, egutegiaren fintasunak argi erakusten du abenduak harrapatu gaituela, eta iruditu zait, tontor elurtuetatik jaitsi aurretik, hemen behean urtean zehar gertatu direnak jakin beharko zenituzketela.

Irakasleon urtea irailean hasten bada ere, ahalegina egin dut hainbeste zeresan ematen duen bi hilabeteko oporraldiaren aurretik zertan genbiltzan oroitzeko, eta, hara non sorpresa, koronabirusarekin egin dut topo. Gogoan izango duzue iaz maskara atzean ezkutaturik egin behar izan zenutela herriko ibilaldia, eta haurrak ezin izan zirela nahi adina gerturatu zuegana gutunak eman eta besarkadak eskatzera. Apirilaz geroztik, baina, ongi ahaztua dugu guztia; ez muga, ez arau, halako murritzetarik gabe egin ahalko duzue aurtengo bisita, eta San Tomas egunean plaza bete-bete eginda eta jendea pega-pega eginda ikusteko aukera ere izango duzue. Kontu izan, ordea, ekarri maskararen bat, badaezpada, astoa egoskortu eta etxerako buelta autobusean egin behar baduzue ere, han oraindik nahitaez jantzi beharko duzue eta.

Xomorroak eragindako buruhausteak ahaztu ditugu,

beraz, baina horrek ez du esan nahi arrangurarik ez denik izan orduz gero: iparraldetik zetozen gerra hotsek telebistari begira jarri gintuzten urte hasieran. Dena zen asmo ona eta eskuzabaltasuna orduan, laguntzeko prestasuna eta errefuxiatuak besoak zabalik hartzea. Baina, xanpainaren aparrak nola, alde egin digu hasierako txinpartak. Oraindik ere ariko dira zenbait buru-belarri, duten guztia ematen, baina gainerakoak, zilborrari begiratu, eta Hirugarren Mundu Gerra noiz iritsiko zain, telebistari begira egongo dira. Eta horra hor arriskua: ez ahal gaitu gerrak pantailari itsatsita, lelotuta harrapatuko...

Egunek aurrera egin ahala, guregana iristen diren gerra hotsak apalduta, uda ere etorri zen, eta, haren ondotik, udazken oparoa: oparoa naturan, hainbat saski betetzeko balio izan duelako, eta oparoa gure hizkuntzarentzat, aldekoak eta kontrakoak dantzan jartzeko hego haizea harrotu duelako. Bi urteren ondoren, iritsi da hirugarren Euskaraldia, gero eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehiago biltzeko asmoz. Baina gu bai

**URTEAREN AMAIERARA
IRITSITA, KONTURATU
NAIZ AURTEN EZ
DUDALA OPARIRIK
NAHI NIRETZAT**

sorioneku-k, Aranzadiren aurkikuntzak, euskal hiztunak harrotu, eta gure hizkuntza etxeko nahiz kanpoko hamaika komunikabidetako lerroburuetara eraman baitu. Eta onddoen abiada berean agertu dira sasi-hizkuntzalariak: gure historiaren edozein zantzu ukatzen dutenak, eta, itsu-itsuan, exotikoa iruditzen zaien oro sinesten dutenak. Hizkuntzalarien lana da orain eskuko txuletatxoan ageri diren hitzak ulertzea, eta kalterik ez luke txapa ematen jarraitzeak, ez eskuari buruz, noski, euskararen herriko erabilera indartzeko baizik.

Eta urtearen amaierara iritsita, konturatu naiz aurtan ez dudala oparirik nahi niretzat. Guztiontzat baliagarria izango den zerbait eskatu behar dizuet, ea datorren urtean beste era bateko laburpena egiteko moduan naizen: itxurakeriak albo batera utzi, eta hitzetatik ekintzetara pasatuko den jendea nahi dut nire inguruan, modei jaramonik egin gabe herri eredugarria sortzeko gai dena.

P. D. Ahaztu gabe, aurtan, badaezpada ere, zakua bete ikatz ekartzea gomendatu behar dizuet. Ez dakit azpeitiarrak zintzoak edo gaiztoak izan diren, baina gaiztakeriarik egin ez duen batek baino gehiagok eskertuko dizue zuen txondorretik erauzitako urre beltza, elektrizitatearen faktura arindu, eta beheko sua pizteko ez baita batere gaizki etorriko. ■■■





Margoen abenturan

Iruindarra da Maria Goñi artista, baina Azpeitian bizi da egun. Bizitza osoa darama margotzen, eta orain Dinamoan igarotzen ditu egunak, datozen hilabeteetan aurkeztuko duen erakusketa ontzen. Gehienbat erretratuak, paisaiak nahiz muralak sortzen dituen arren, orain *fast painting*-a du zaletasun eta erronka. Argazkiak eta testuak: **Maialen Etxaniz**.

IBILIAN-IBILIAN IKASITAKOA

EHUn Arte Ederrak ikasi ostean, atzerrian ibili zen hainbat urtez Maria Goñi (Iruñea, 1985), arte arloko formakuntza jasotzen eta askotariko proiektuak egiten. Besteak beste, Granadan (Espainia), Txilen, Kuban, Irlandan eta Italian egin zituen geldialdiak, eta horietan ezagututako jendeari esker, arteari lotutako askotariko esperientziak bizitzeko aukera izan zuen. Besteak beste, Alice Rohrwarcher zinema zuzendariarekin kolaborazioa egin zuen *Corpo Celeste* filmerako, eta Kuban hainbat proiektu artistiko garatu zituen Enrique Hernandez artistarekin.



PINTZELKADEKIN, "MAGIA"

Goñik leku edo objektu batek sortzen duen "magia nabarmentzeko" erabiltzen du pintura. "Zenbaitentzat hain haitemangarria ez den magia hori bistakoa egin nahi dut", dio. Hori dela eta, egunerokoan aurkitzen dituen objektuak marraztea atsegin du, horien berezitasunak azpimarratzeko eta irudikatzeko. Orain, gainera, muralen sorkuntzan murgiltzeko asmoa du. Argazkian, margolaria duela urte batzuk Sahats euskaltegirako egindako horma irudiaren ondoan.



SORTZEKO NAHIA

Iruñean bizi zenean, arte estudioa ireki zuen Goñik, hango katedralaren aurrean. Gehienbat erretratuak egiten zituen orduan, baina Done Jakue bideko jendeari zuzendutako lan artistikoak ere, baina artista baino gehiago, "dendaria" zen sentipena zeukan. Azken urteotan, hezkuntzan aritu da lanean han eta hemen, ikastetxeetan zein kultur etxeetan, baina orain berriro murgildu nahi du artearen abenturan. "Nire asmoa da berriro artearekin zerikusia duten proiektuei ekitea eta bizitzak nora eramaten nauen ikustea".



PAISAIK

Azken boladan paisaiak margotzen ari da Iruñeko artista, kolore apalak erabiliz, baina, aldi berean, tonu hotzak eta beroak uztartuz. Pandemia garaian egindako hausnarketa batetik abitu zen Goñiren proiektu berria: "Ohartu nintzen guztiok antzeko koadroak genituela etxeetan; kate handietatik erositako nortasun gabeko laminak. Niri ere gustatzen zaizkit horrelakoak, baina aukera polita iruditu zitzaidan etxeak apaintzeko margotzen hastea. Hori dela eta, paisaiak margotzen ari naiz azken hilabeteotan. Hortik abiatu da Azpeitian aurkeztuko dudana proiektua, baina ez dut nahi asko aurreraterik, hasierako proposamenetik aldaketa asko izan baititu".



ERRETRATUAK, UGARI ETA SARRI

Irlandara egindako bidaiak ate berriak ireki zizkion Goñiri. Erretratu ugari egin zituen han enkarguz, eta arlo horretan trebatzeko aukera eskaini zion horrek. Ondoren, Iruñean irekitako estudioan ere, erretratuak egiten jarraitu zuen, betiere bere estiloari jarraiki. "Bezeroek beti ematen didate sormenerako askatasuna, eta hori asko eskertzen dut", kontatu du.



MARGOLANAK, ZUZENeko IKUSKIZUN

Goñik jorratu duen beste bideetako bat *fast painting* izenekoa da. Zuzeneko ikuskizunetan euskarri berezietan margotzean datzan ekintza da hori. "Besteak beste, ezkontzetan, erakusketetan edo ikuskizunetan egin izan dut *fast painting* delakoa, eta asko gustatzen zait sortzen duen zirrara", adierazi du.

OBJEKTUAK ETA ANIMALIAK

Egunerokoan aurkitzen dituen objektuak marraztea ere atsegin du Goñik, eta objektuen artean antzekotasunak bilatzea ere bai. Esaterako, ezpainetakoen eta balen arteko antzekotasunetik abiatuta egin du koadro bat duela gutxi. Orain, animalien erretratuak egiten hasi da. "Jendeak ikaragarri maite ditu etxeko animaliak, eta pertsonen erretratuak sortzen ditudan bezala, orain animaliak marrazten hasi naiz. Hori bai, ez ditut guztiz eredu errealdan irudikatzen; nahiago dun pintzelkadekin jolastea". ■■■





MIEL A. ELUSTONDO

Emazteari bakarrik

Nire emaztetxo bihotzeko on-ona, bartko ametsak zurekin ipini nau ohe zabalean negarrez urturik, bihotza ilundurik eta tristeziak jantzirik, baina ezin gehiago.

Ohe hartan hamazazpi bider zurekin ametsetan isuri nuen hazia ugari, Maripepatxu. Bada, zuk utzi bazenuen (...), zuk nahi eta nahi ez, nik bezala botako zenuen hazia izortegira, eta ukitu batekin gaur izango zinen izor (...), bada, dio gizon jakintsuak gutxienez mila bider ametsetan galdu izan banaiz, haiek guztiak behar zirela zure izortegian egin, gorputzek nahi duten moduan. Orduan, edukiz gero hilekoa, hainbeste eraginekin zure barruko arrautzatxoaren hazia eroriko zela izortegira, eta nik isuririk nirea eta zuk zeurea, orduan biak oraturik edo biona bat eginik geratzen dela, eta, orduan, nahi eta nahi ez, izor geratu. Eta behin hasiz gero, nire gorputza bezala, zurea egongo zen txit erraz horretarako.

Baina nik bakarrik isuririk, ez badauka laguna, erabatera ezin geratu, eta irten egiten du haziak, baina gero, ekin eta ekin, eraginarekin etorriko zitzaizun ugari hazia, eta osasun hobea.

Ai, Mari Papatxu, zuk, txarto informaturik, ez gura zenuen

behin batuz gero gehiago batu. Zure usterik, behin eginez gero ez da gehiago. (...) Nire emaztetxo maitea egiazalea eta egiazkoa, inoiz baino deunago nago horretan. Igarotzen dut zu ez egoteagatik milioi bat neke eta garrazmin. Aitortu eginez dominiko batekin, enkargatu zidan beti emaztea alboan edukitzeko, ni ez naizela egoteko emazte esposa gabe. Nik egin arren ahalegin guztia, sufritzearren, ez dela posible egotea. Nik egin arren bihotza estutu arnasa geratuz hil aginean bezala, atzeratzeko bihotzeko gogoa, alfer-alferrik dela; bat, ipintzen dudala gaitzurra edo peligroa neu itotzeko gauez ametsetan; bi, egiten dudala naturaleza edo izatearen kontra, atzeratzeaz. Munduan den txarrena. Hortik edo hala etorriko zaidala erreberotu, beneno edo edena bezala, gaitz horrekin hiltzea neu, ea zer nabilen, ze hala hil direla guztiz asko".

(1823, Jose Pablo Ulibarriren gutunak). ■

**OHE HARTAN
HAMAZAZPI BIDER
ZUREKIN AMETSETAN
ISURI NUEN HAZIA
UGARI, MARIPEPATXU**



SARA AMENABAR

Bakarrik ezin

Gogorra izan. Ez egin negarrik. Zuk bakarrik, ahal duzu. Zenbat aldiz entzun dituzu horrelako esaldiak? Ziur nago, askotan entzun edo esan dituzula. Sinetsi ere bai, agian. Ez da arraroa, inguruan ikusitakoa barneratzen baitugu. Bada ikastearen garrantzi berbera duen beste aspektu bat: desikastea.

Ez daukazu gogorra izan beharrik. Egin negar, lasai. Zuk bakarrik, beti ezin duzu. Laguntza behar duzu; zuk, nik eta denok. Inoiz ez da berandu laguntza eske hasteko, barrena husteko eta ausarta izateko. Zer da ausarta izatea? Ez dakit, niretzat emozioak askatzearen eta ondokoari euskarria eskatzearen sinonimoa da. Baina zer da zuretzat?

Agian, laguntza jaso nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi. Agian "ez nago ondo" esaten has zaitezke. Ispiluaren aurrean probatu, idatzi, ahoz esan. Modu desberdinak esploratu. Zurekin gehien konektatzen duena aukeratu. Kostatu arren, egin. Aske sentituko zarelakoan nago.

Zeinen polita den askatasuna. Urteetan zuretzat bakarrik gorde duzunari merezi duen espazioa ematea. Besteekin elkarbanatzea. "Zure laguntza behar dut" esatea. Bakarrik ezin, lagun. ■

TiEN21ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

AZPEITITIK IRTENDAKO TALDEKO BIDAIAK 2023



IRTEERA AZPEITITIK

**GRANADA
KORDOBA**

martxo



IRTEERA AZPEITITIK

TANZANIA

apirila



IRTEERA AZPEITITIK

ARMENIA

apirila



IRTEERA AZPEITITIK

**RALLYA
CERDEÑAN**

ekaina



IRTEERA AZPEITITIK

GREZIA

ekaina



IRTEERA AZPEITITIK

**IBAIKO
NABIGAZIOA
ALEMANIAN**

uztaila



IRTEERA AZPEITITIK

**RALLYA
FINLANDIAN**

abuztua



IRTEERA AZPEITITIK

**TREKKINGA
ALBANIAN**

abuztua



IRTEERA AZPEITITIK

ISLANDIA


iraila



IRTEERA AZPEITITIK

PARIS

iraila



IRTEERA AZPEITITIK

IRAN

urria



IRTEERA AZPEITITIK

EGIPTO

abendua